

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2013ko uztailaren 9a. IX. urtea. 2.624. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Atez atekoaren lehen egunean ontzi marroia atera zuten Amasa-Villabonan. ITZEA URKIZU

Organikoen ontzia atereaz hasi dira Amasa-Villabonan

Atez ateko hondakin bilketari hasiera eman diote Amasa-Villabonan; Galder Azkue alkateak herritarrak zoriondu ditu

Larunbatetik iganderako gauean, herriko alkatearen etxe azpiko edukiontziak erre dituzte, bi atari eta bulego bat kaltetuz 02

Euskal Herriko Igeriketa txapelketan garaile izan dira infantilak

Tolosaldea IKT taldeko igerilariek emaitza bikainak lortu dituzte; Ander Arruabarrenak hiru urrezko domina eskuratu ditu 06

Xabier San Sebastian da Gipuzkoako txapeldun berria

Junior mailako txirrindulari proba irabazi du Limousin taldeko tolosarrak; Garaiko Triatloian Aitor Regillaga hirugarren sailkatu da 07

Kanflanka eta Lizaso ariko dira Euskal Herriko finalean

Hilaren 20an jokatu da sega txapelketako finala; Ormaetxea eta Alkorta ez dira sailkatu 07

Txapeldunorde geratu da Tolosa Herriarteko txapelketan 07



REALA-TOULOUSE

Futbol partida

Beaingo Loinaz Futbol Zelaian

Uztailak 20, Larunbata 19:00etan



Prezioak: Tribuna 15 €, Beste lekuetan: 8 €, Haurrak (8 urte arte): 5 € • **Sarrerek salgai:** Ahora Dendan, 66 Tabernan, Ikatza Tabernan eta Beaingo Tti-tta Tabernan.



Ainhua Iraola, Galder Azkue eta Amaia Azkue izan ziren bilketa sistema berriaren lehen egunean. | URKIZU

Amasa-Villabona ere zero zabor bidean jarri da

Gaikako bilketarekin hasi dira, eta Galder Azkue alkateak herritarrak zoriondu ditu honen aurrean

Itzea Urkizu Amasa-Villabona

Atzo goizean pasa zen lehenengoz, Amasa-Villabonatik, aurreantzean hondakin organikoaren ontziak jasoko dituen kamioia. Txermingo ikastolaren ondoan, Galder Azkue Amasa-Villabonako alkatea, Amaia Azkue Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkaria, eta Ainhua Iraola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako zuzendaria elkartu ziren, atez ateko bilketa sistema ofizialki abiarazteko.

Galder Azkue alkateak, herritarrak zoriondu zituen, hasteko: «Egun zorionsua da guretzat, atez atekoari hasiera emango baitiogu. Pauso handi bat emango dugula iruditzen zaigu, hondakinen arazoari irtenbidea emate bidean. Beraz, nire aldetik behintzat, herritarrei eskerrak eman nahi dizkiet, eta baita zoriondu eta animatu ere».

Amaia Azkuek, bere aldetik, eskualde osoko egoera baloratu zuen, hondakinen bilketari dagokionez: «Pasa den ekainaren 17an eman genion hasiera, Tolosaldean, atez ateko bilketa sistemari, eta bertan esan genuen birziklatze tasak iraultzera gindoazela. Gaur, esateko moduan gaude, %70a gaika sailkatzen dugula herri horietan». Horrekin batera, zorionak eman nahi izan zizkien billabonatarrei, Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak ere.

Azkenik, foru aldundiko Ainhua Iraolak, Gipuzkoa pauso nabarmenak ematen ari dela azpimarratu zuen, zero zabor norabidean, eta herritarren konpromisoa nabarmendu zuen era berean: «Herri askotan bilketa sistema eraginkorrak ezartzen ari dira, eta beste hainbat herritan, berriz, konpromiso argiak hartzen ari dira bilketa sistema hobetzeko eta birziklatze tasa handietara iritsi ahal izateko».

Honekin batera, Europako eta AEBetako hainbat lekutan atez ateko hondakinen bilketa sistema indarrean dagoela gogora ekarri zuen, eta «datu eta irizpide objektiboetan oinarrituta, birziklatze tasa altuenak ematen di-

tuen sistema» dela baieztatu. Hondakinen bilketa datuez harago, ordea, sistema berri honek Gipuzkoako herritarrek ingurumenarekiko duten jarrera aldatzen ere lagunduko duela uste du Iraolak, Amasa-Villabonatan azpimarratu zuenez: «Gizartean kontzientziario zabaltzen ari da, eta eragile eta elkarrekin ere konpromisoa hartzen ari dira, hainbat hitzarmen eta formularen bidez, zero zabor norabidean».

Herritarrei babesa

Pasa den larunbatetik igandera goauean, 23:00ak aldera, Villabonako alkatearen etxe azpiako zenbait edukiontzi erre zituzten, Kale Berrian. Galder Azkue alkateak, ordea, ez zuen gertakariaren inguruko baloraziorik egin nahi izan atzo.

Besterik gabe, herritarrei babesa erakutsi nahi izan zien: «Ni Amasa-Villabonako alkatea naiz, eta ez dut gai hau baloratuko. Sutearen eraginak jaso dituzten bizilagunei nire babesa eskaini nahiko nieke, eta jakin dezatela, udalak lagundu egingo diela beharrezkoak diren tramite guztietan».

EH Bilduko Marian Beitialarangoitia ere bertaratu zen Vi-

llabonara, eta sutearen gertakaria izan zuen hizpide: «Amasa-Villabonak emandako pausoa, eta oro har, Gipuzkoako nahiz Nafarroako Sakanako hainbat herririk emandakoa auzi honen zati ona besterik ez da. Izan ere, larunbat gauean hemen gertatutakoa ez da lehen aldia, gogoan izan behar baita Lezokoa».

Horrela, eztabaida tekniko eta lasaietarako deia egin die gainerako alderdi politikoei: «Hondakinen bilketaren inguruan hitz egin beharrekoek eztabaida lasai eta teknikoak eskatzen dituzte, politikoak baino gehiago. Batzuk, aldez, horrek eragiten diena gustuko ez dutelako, nahiago dute gezurretan oinarrituriko eztabaida zikina eta nahasia; horretan aritu dira azkenaldian. Eta hor kokatzen dugu Villabonatan erretako edukiontziena».

Bide horretan, Beitialarangoitia errauste plantaren auzira begira ere jarri zen, eta «interes ekonomiko eta politikoak» aipatu zituen: «Errauste planta eraikitzeko dituzten interes horiek gailenduz, ikusten dugu eztabaida zein parametrotara eramana nahi duten. Ez gara gu eztabaida bide horietara eramana nahi dugunak, eta gainerako indar politikoak ere elkarriketa eta negoziazio lasaietara deitu nahi genituzke».

Finean, edukiontzien erretzea EAJri egotzi ez dion arren, hauen jarrera erlazonatu du gertakariarekin: «EH Bilduk ez daki EAJ horren atzean dagoen edo ez, baina garbi daukaguna zera da, EAJ bezalako alderdiek auzi honetan darabilten jarrera, horrelako gertakariaren animatzaile eta sustatzaile dela. Beraz, bere ardura maila badu alderdiak, eta zentzuz pentsatu beharko luke zertan ari den».

Azkenik, hondakinen bilketa sisteman auziko bi aldean ordezkari diren plataformek ere eman dute beren iritzia suteaz. Tolosaldea Txukuneko Patxi Amantegik

«oso haserre» erakutsi du bere burua, edukiontzia erretzea euri egotzi dietela uste baitu: «Gustatuko litzaidake argi geratzea, guk ez daukagula horrekin zerikusirik. Gertakari hau, orain arteko erretzeen eskeman sartuko nuke; norik erretzen ditu hemen edukiontzia? Ez da berria edukiontzia erretzea, eta nik pentsatzen dut betikoak izango zirela».

Bide honetan, Galder Azkue alkatea ere hizpide izan du Amante-



Ez da berria edukiontzia erretzea, eta nik pentsatzen dut betikoak izango zirela»

PATXI AMANTEGI
Tolosaldea Txukuneko bozeramailea

«Larunbatekoa ez dugu aintzat hartu, gaurko eguna baita guretzat garrantzitsua»

AMASA-VILLABONAKO ZERO ZABOR

gik: «Villabonako alkatea, herri osoan barrena gasolina botatzen ari da, eta orain kezatu egiten da norbaitek su eman diolako. Logikak dio kontrakoa dela, eta atez atekoaren alde dagoen norbaitek ari dela edukiontzi guztiei su ematen».

Amasa-Villabonako Zero Zabor taldeak, berriz, bilketa sistema berria azpimarratu du: «Guretzat gaurkoa izan da egun garrantzitsua, hainbeste lanen ondoren gaika biltzen haseta lortu delako. Azken finean ez da hondakinen kontua bakarrik; gizarte ereduaren aldaketa bat da, eta guk hori bultzatu nahi dugu».

Horrela, ez dute larunbateko gertakaria baloratu nahi izan: «Inork ez du sutea bere gain hartu. Kontu politiko horietan gu ez gara sartzen, eta guk larunbatekoa ez dugu aintzat hartu, gaurko eguna baita, guretzat, benetan garrantzitsua».

Irudia



EDUKIONTZIAK SUTAN

Amasa-Villabonatan, larunbat gaueko suteak bulego batean eta bi ataritan kalteak eragin ditu, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi duenez. HITZA

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZAK

Hauxe Garbitasunak. Garbiketako orokorrak: etxeak, bulegoak, Aurrekontua eskatzeko, deitu konpromisorik gabe 681 15 24 94 telefono zenbakira.

Etxeko lanak. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientziadun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. 943 696882 / 606 521992.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PSE-EEK «boikota» salatu du herri galdeketetan

Hondakinen inguruko herri galdeketetako parte hartzea esanguratsutzat jo du PSE-EEko ordezkariak

Itzea Urkizu Tolosa

Azken asteotan Tolosaldeko hainbat herritan hondakinen bilketa sistemen harira egindako herri galdeketak baloratu zituen, pasa den ostiralean. Tolosaldeko PSE-EE alderdiak. Agerraldian, Denis Itxasok «boikota» salatu du: «Ezker abertzaleak beldurrez beteriko erantzuna eman du, eta boikoteatu egin nahi izan du guztia».

Gipuzkoako PSE-EEko ingurumen arduradun Denis Itxasorekin batera, Jose Ignacio Asensio Tolosako zinegotzia, Maria Luisa Arija Amasa-Villabonako zinegotzia eta Oscar Martinez Zizurkilgo zinegotzia izan ziren agerraldian, eta guztiak nabarmendu dute «herritarren parte hartze handia».

Itxasok, egoeraren irakurketa galdeketetatik harago egin behar dela uste du, izan ere, «jasotako sinadurek, manifestazioek nahiz protesta egiteko hainbat egitas-mok jendearen ezinegona erakutsi dute», bere ustez: «Honekin batera, kontsultek datu berri bat eman digute, eta ez gaude bestaldera begiratzeko prest, ez emaitzekin, eta ezta ezker abertzalearen jarrerarekin ere». Dena den, onartu egin du delegatutako botoetako sinadurekin gertaturiko hainbat gauza ez zaizkiela gustatu: «Horrek, ordea, ez dio zilegitasunik kentzen parte hartzeari».

PSE-EEko ingurumen arduradunak galdeketetara bozkatzera ez joatea eskatzen zuten bi kartel erakutsi zituen prentsaurrekoan: «Hau boikota da, eta aurretik pentsatutakoa gainera. Hemen ikusten da zein den bere izaera demokratikoa».

Honekin batera, «ezker abertzaleak bozkatzera joan ez direnei barre egin» diela azaldu zuen Itxasok: «Bozkatzera joan ez di-

ren guztien bozka bereganatu dute, eta hori faltsua da, iruzurra da».

Hondakinen bilketa sistemen auzi hau «tokian tokiko demokraziarekin» estuki lotuta dagoela uste du Tolosaldeko PSE-EEK, eta honen harira, herri galdeketak udalek eurek antolatu behar zizuztela irizten dute. Horrela, beraz, ezker abertzaleari «auzia politizatzea» egotzi diote.

«Kezka» egoeraren aurrean

Maria Luisa Arija eta Oscar Martinez zinegotziek, «kezka» azaldu zuten: «Zizurkilgo bizilagunei jarraitu egiten diete kalean, zaborra nora botatzen duten ikusteko, eta egiazki, ez dago oraindik ordenantzarik; ontziak jartzea bakarrik arautzen du ordenantzak. Atez atekoa jauntxokeria bat da, azken finean», salatu zuen Martinezek.

Bere aldetik, Amasa-Villabonako Maria Luisa Arija zinegotziak «desilusioz beteta» azaldu zuen bere burua. Bildurekiko: «Demokratak direla diote, eta ez da horrela. Gainera, atez atekoaren kostua udaleko hainbat partidetan zatituta dago, eta ezin da benetako gastua ezagutu».

Tolosarako «itxaropena»

Tolosan uda ondoren emango dute, hondakinen bilketa sistema zehazteko informarean emaitza. PSE-EEko Jose Ignacio Asensio, horren harira, «udal gobernua-ren aldetik isiltasuna besterik ez» dagoela nabarmendu zuen: «Tolosako erabakia oso-oso baldintzatuta dago, bai pleguaren baldintzen aldetik, bai hondakinen bi mahaiak eratzeko moduagatik nahiz informegatik ere».

Hala ere, «udal gobernua herritarrekiko gutxiengoan» dagoela azpimarratu nahi izan zuen: «Hori ez bada errespetatzen, zer da parte hartzea?». Bide honetan, beraz, «itxaropentsu» azaldu ziren Asensio eta Itxaso: «Tolosan, Bilduk beste zenbait herritan eman duen ziaboga emango du ziurrenik, aurkako indarra handiago delako herri txikitian baino».

Irudia Tolosa



MAIATZEKO ETA EKAINEKO SARIDUNAK

Tolosa&Co-ko Visa txartelaren maiatza eta ekain bitarteko sustapenaren zozketa egin dute. 1.000 euroko erosketarako txekeak Sorkunde Naberanek (Lirain Lurrindegian) eta M^a Isabel Ibar-gurenak (Aneka Estetikari) jaso dituzte. 500 euroko erosketarako txekeak Alicia Muruak (Miren Harategian) eta Olvido Gonzalezek (Zain-

Berri belardendan) jaso dituzte. 250 euroko erosketarako txekeak Maite Arrizibitak (Amets Jostailu-dendan) eta Maria Victoria Gorostidik (La Vasconian) jaso dituzte. Irudian, sariak jaso dituztenak eta Visa txartela erabiliz ordainketa egin zuten dendetako ordezkariak. Aurki, sanjoanetako promozioaren saridunen berri emango dute. HITZA

Gutuna

Emakumei esker onez

Udako solstizioarekin batera, 2013ko San Joan jaiak pasa berri-terro hauek idazteko behar sentitu dugu.

Oraindik herriko jaien bihar-muneko irribarrea dugu ahoan, irudiak ikusiz areagotzen dena.

Aurtengo San Joan jaiak go-goangarriak izan behar zuten hogeita hamar urte bazirelako lehen aldiz gure herritan emakumeak eskopetariz atera zirela. Horregatik, udal gobernua aurtengo jaiari hasiera emateko aukera eman nahi izan zuten. Izan ere, eurek duela hogeita hamar urte emandako pausoa-oren ondorioz gaur egun, emakume edo gizon izan, festan parte hartzeko aukera ireki zuten.

Eta honekin batera, aurtun, hogeita hamar urte berandua-go, lehen aldiz emakume bordon-dantzariak izan ditugu. Pozgarriak eta hunkigarriak izan

dira, era berean, aurtengo bordon-dantzarien emanaldiak.

Udalbatzako kide, tolosar eta emakume garen aldetik ohore bat izan da aurtengo egun handia zuekin bizitzea. Inoiz atzera begiratzen dugunean zuetaz oroitu gara. Mila esker bihotz-bihotzez duela hogeita hamar urte pausoa eman zuten emakumei eta aurtun eman duze-noi. Biba zuek!

Baina ez ahaztu, honek aurre-erra darrai, badago zer egiteko oraindik jai parekideagoen alde, guztiak errespetatuak izango garen jaien alde. Guk lanean jarraituko dugu pausoz pauso egiten baita bidea, eta noski, tolosar guztiak, izan gizon edo emakume bidelagun izatea espero dugu. Urte osoa dugu jaiak antolatzeke, ea datorren urteko udako solstizioak zer dakarren...

■ **Lore Agirre eta Miren Urkola.** Tolosako Udaleko zinegotziak.

→ Laburrak

Gaur epaituko dute Jokin Aranalde iheslaria

IBARRA › Jokin Aranalde iheslaria epaituko dute gaur Pauen, 09:30ean. Goizean goiz sende-ak, lagunak eta hainbat herritar joan dira Pauera. Gaur, 19:30ean, batzar informetiboa egingo dute Ibarako plazan, epaiketan gertatua azaltzeko.

Zumardiaundiko kioskoa kudeatzeko izen ematea

TOLOSA › Tolosako Zumardiaundiko kioskoaren ustiapena lehiaketara ateratzea erabaki du udalak, eta astebetez luzatu du izena emateko epea, hilaren 15a arte. Esleipena hasiera batean sei hilabetekoa izango da. Kontratatzaileak ez du ezer ordaindu beharko, ez inongo kanon, berme edota alokairirik.



Martinez, Arija, Itxaso eta Asensio, agerraldiaren aurretik. I. URKIZU

Patxi Amantegi Tolosaldea Txukuneko Bozeramailearekin ZUZENEKO ELKARRIZKETA

Uztailak 18,
osteguna
20:00etan

Bidali zure galderak:
tolosaldean@hitza.info
edo
@hitzatolosaldea



Ikusi **tolosaldea.hitza.info** edo **www.galtzaundi.com** webgunetan edo entzun **txolarre irratan**

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**



Alegia ◯ Urtero moduan motozaleek ikusmin handia pirtu zuten. it.

Tolosako Amartzotz eta Iurre auzoetan festak ospatu dituzte, eta Alde Zaharrean, sanferminak; Alegian motozaleak bildu dira.

Festak eta San Fermin giroa asteburuan

Iligo Terradillos

Esteburuko txoko askotan jai giroan igarotzen dute asteburua. Tolosako Amartzotz eta Iurre auzoetan festak ospatu dituzte, eta Alde Zaharrean San Fermin giroa izan da. Alegian, berriz, motozaleek jartzi dute festa. Truhesak edota Lesakan esentrik gursuan ere galitza eta elastiko zurriak eta zapi gorriak jantzita irten ziren herritar asko, larunbatetik. Tolosako Alde Zaharrean aspeldian ohitura zena berreskuratu dute azken urteetan, eta suzuria jaurti zuten sanferminak irudikatuz. Ondoren etorri ziren zentxoak eta buruhandiak, eta horien aurretik nahiz puzgarrietan jokoson aritu ziren gazteak. Patata tortilla lehiaketan, berriz, sei partaide izan ziren, eta ondoren, herri bakarraren elkartu ziren auzotarrak.

Tolosako Iurreamendi auzoan, berriz, hiru eguneko festa izan dute. Furbokerekin eta aitariarekin hasi ziren ostegunetan, eta ostiralean bota zuten suzuria. Bertan ere entzerrotxoa izan zuten, eta haurrek ederki pasa zuten. Ederki jolastu ostean, Larrañ dantza egun zuten auzotarrak. Larunbatean, krossa egun zuten auzotarren artean, eta jaiak behar bezala amaitzeko, afarian elkartu ziren guztiak, giro ederresan. Amartzotz auzoan ere ekitaldi baterako asteburua izan dute. Ostiralean hasi zituzten jaiak, monorro guzuetan. Larunbatean, gutxiak k puzgarrietan nahiz jokoson ari ziren bitartean auzotar ugari animatu zen auzotarrero

lehiaketan parte hartzera. Sariak banatu ostean, bazkaria izan zuten, eta arretasiderako, antzerkia, herri kirolak edota enkaoneka izan zituzten aukera. Herenegun ere jarraitu zuten festak, Amartzotz dantza taldearen emandarekin, herri bazkariarekin nahiz sardina jatearekin.

Lizaritzen, ere San Fermin eguna ospatu zuten ostiralean, udalako irakietako haurrak, sanferminako abestiaren bideoak ipa grabatuak, entzerrotxo eginez, eta ur jolasetan jolastuz.

Bestalde, ehunka motozale bildu ziren Alegian, Ibarako Langostino moto elkarrekin antolatutako XI. Langostino Moto Festan. Larunbatean motorrekin eginko jolasek izan ziren ikusgai. Ondoren, bihildu egun zuten motozaleek, eta gausan, afaldu eta perok, kontzertuak izan ziren Alegiako plazan. Herenegun, potosa ere egun zuten herritar.

Peroteko langileen epalietan Zuzurkigo Huyck Wangner langileko elkarretarata egun zuten larunbatean, Tolosako Triangeluan. Hain zuzen ere, gaur dute Bilbon, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian 74 langile kalebrazko erregulazio dosieraren aurkako epalietan. Egun bateko epalietan izatea espero dute, eta epaiaren herri inol emango duten es dakiten arren ziurrenik uda ostean izango da.

Albiste guztiak, argazkiak daude bideoak sarean daude ikusgai: tolosaldeko.hitza.info



Tolosa ◯ Zuzurkigo Huyck Wangner-eko langileek elkarretarata egin zuten larunbatean. it.



Bidegoain ◯ Herriko adinekoek Deban egin dute egunpasa ederra. HITZA



Tolosa ◯ Amartzotz auzoko jaietan auzotarrak lehiaketan auzotar ugari hartu zuten parte larunbatean, eta gazteok ere ederki igarotzen jolastu. 1. IRRUKALDIA



Tolosa ◯ Iurreamendi auzoko jaietan haurrentzako entzerrotxo gain, hamaika ekitaldi izan dituzte hiru egunetan zehar, sokatira, katu. COO. IRRUKALDIA



Tolosa ◯ Alde Zaharrean San Fermin giroa izan zen nagusi larunbatean. it.



Lizartza ◯ Herri askotan jantzi dira zuri-gorri, Lizartzan, esaterako. HITZA

XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa

Sari mundialak!

Bidali zure argazkia thargazkiak@hitza.info helbidera!

Mauka

Sansonategin, 8 plater 25€tan. Eta haurrak DOAN!

SANSONATEGI JAIETARTEA
 Herriko 2000. LE
 HERRIAN
 TEL. 94333 1512
www.sansonategi.com

25€
 berria

www.mauka.eu

KARIBERA
 zoon nahi al duzu?

Maukarekin
 Karibera doan jate zentzua!

DOU HA HITZA MAUKA EU

Tolosaldea IKT infantiletan Euskal Herriko txapeldun

Ander Arruabarrenak hiru urrezko domina lortu ditu Tolosako Usabal kiroldegiko igerilekuan

Asier Imaz

Infantilen mailako Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa jokatu zen larunbatean eta igandean Tolosako Usabal kiroldegian. Etxeko taldeak, Tolosaldea IKT-k, maila bikaina erakutsi zuen, eta proba guztien batuketan egin ostean, puntu gehien bildu zituen taldea izan zen, IKT-ko igerilari guztiei esker.

Norbanakoen emaitzak begiratzeko hasita, Ander Arruabarrenaren lana azpimarratu behar da, IKT-ko igerilariak hiru urrezko domina lortu baitzituen. Arruabarrena 200 metroko distantzian jaun eta jabe izan zen, modalitate

desberdinetan izan arren, hiru garaipenak luzera horretan lortu baitzituen.

Iosu Molinerok eta Ekain Agotek bi proba irabazi zituzten. Molinerok, 100 metroko distantziari atera zion zukua, eta Agotek, tximeleta igeriketan ederki moldatzen dela erakutsi zuen, 100 eta 50 metroko luzeran bi urrezko domina eskuratu.

Garaipen bakarrarekin, baina bikain, Julen Urretabizkaia, Jon Urdangarin, Nerea Rodrighez, Kepa Oartzun, Iker Badallo eta Marina Etxarri gelditu ziren.

Norbanako probaz gain, taldekakoak jokatu ziren Usabalen, distantzia eta modalitate desberdinetan. Neskek zein mutilen puntu ugari pilatu zituzten. Mutiletan, puntu guztiak gehitu ondoren, lehen postuan gelditu ziren Tolosaldea IKT-koak, eta nesketan, bosgarren. Bien batuketak, ordea, lehen postua eman zien eskualdeko igerilari gaztetxoek.



Igerilari eta ikusle ugari elkartu ziren asteburuan Tolosako Usabal Kiroldegian. I. TERRADILLOS

↓ Euskal Herriko infantilen igeriketa txapelketa, sailkapenak

100 METRO, MUTILAK

1999. urtekoak

1. Iosu Molinero 1:08:33

200 METRO, NESKAK,

BULAR-IGERIKETA

1999. urtekoak

2. Marina Etxarri 3:01:12

200 METRO, MUTILAK,

BIZKAR-IGERIKETA

1999. urtekoak

1. Ander Arruabarrena 2:12:83

100 METRO, NESKAK

1999. urtekoak

5. Uxue Zabala 1:06:62

100 METRO, MUTILAK,

TXIMELETA

1998. urtekoak

1. Julen Urretabizkaia 1:04:31

1999. urtekoak

1. Ekain Agote 1:03:83

1.500 METRO, MUTILAK,

1998. urtekoak

5. Ander Alkorta 19:44:98

50 METRO, NESKAK,

BIZKAR-IGERIKETA

1999. urtekoak

2. Nerea Rodrighez 32:51

4. Marina Etxarri 35:74

50 METRO, MUTILAK

1998. urtekoak

7. Juan Garikano 28:04

1999. urtekoak

1. Jon Urdangarin 27:51

4X200 METRO, NESKAK

5. Tolosaldea IKT 9:40:22

200 METRO, MUTILAK,

BULAR-IGERIKETA

1999. urtekoak

2. Alex Perez 2:42:75

200 METRO, MUTILAK,

BIZKAR-IGERIKETA

1999. urtekoak

1. Nerea Rodrighez 2:31:11

100 METRO, MUTILAK

1998. urtekoak

12. Juan Garikano 1:02:20

1999. urtekoak

1. Kepa Oartzun 57:02

5. Iosu Molinero 59:22

9. Jon Urdangarin 1:02:47

100 METRO, NESKAK,

TXIMELETA

2000. urtekoak

6. Leire Erbiti 1:19:19

200 METRO, MUTILAK,

TXIMELETA

1998. urtekoak

2. Julen Urretabizkaia 2:24:39

3. Xabier Beitia 2:26:51

50 METRO, MUTILAK,

BIZKAR-IGERIKETA

1998. urtekoak

1. Iker Badallo 33:46

50 METRO, NESKAK

1999. urtekoak

3. Uxue Zabala 29:70

4X200 METRO, MUTILAK

3. Tolosaldea IKT 8:22:62

200 METRO, NESKAK

2000. urtekoak

5. Leire Erbiti 2:28:33

200 METRO, MUTILAK

1998. urtekoak

4. Xabier Beitia 2:21:08

1999. urtekoak

1. Ander Arruabarrena 2:17:89

9. Unai Iribar 2:45:81

100 METRO, MUTILAK,

BULAR-IGERIKETA

1999. urtekoak

2. Alex Perez 1:15:60

400 METRO, MUTILAK

1998. urtekoak

12. Ander Alkorta 4:56:91

1999. urtekoak

3. Kepa Oartzun 4:33:73

50 METRO, MUTILAK,

TXIMELETA

1999. urtekoak

1. Ekain Agote 27:62

4X100 METRO, NESKAK

5. Tolosaldea IKT 4:20:04

4X100 METRO, MUTILAK

2. Tolosaldea IKT 3:47:17

200 METRO, MUTILAK

1999. urtekoak

1. Ander Arruabarrena 2:03:52

3. Kepa Oartzun 2:07:18

100 METRO, MUTILAK,

BIZKAR-IGERIKETA

1998. urtekoak

2. Julen Urretabizkaia 1:04:45

1999. urtekoak

1. Iosu Molinero 1:03:49

2. Ekain Agote 1:03:66

4. Jon Urdangarin 1:08:55

6. Unai Iribar 1:13:99

100 METRO, NESKAK

BULAR-IGERIKETA

1999. urtekoak

1. Marina Etxarri 1:23:48

400 METRO, MUTILAK

1998. urtekoak

2. Xabier Beitia 5:00:58

1999. urtekoak

9. Unai Iribar 5:53:73

50 METRO, MUTILAK

BULAR-IGERIKETA

1998. urtekoak

5. Juan Garikano 36:62

1999. urtekoak

2. Alex Perez 35:49

50 METRO, NESKAK

TXIMELETA

1999. urtekoak

4. Uxue Zabala 32:99

4X100 METRO, MUTILAK

ESTILO ANITZETARA

3. Tolosaldea IKT 4:14:54

4X100 METRO, NESKAK

ESTILO ANITZETARA

3. Tolosaldea IKT 4:53:46

TALDEKA MUTILEN

SAILKAPENA

1998. urtekoak

1. Galdakao Igeriketa 167 puntu

1. Tolosaldea IKT 167 puntu

1998. urtekoak

1. Tolosaldea IKT 323 puntu

TALDEKA NESKEN

SAILKAPENA

1999. urtekoak

2. Tolosaldea IKT 136 puntu

2000. urtekoak

18. Tolosaldea IKT 35 puntu

TALDEKA SAILKAPEN

OROKORRA

Mutiletan

1. Tolosaldea IKT 578 puntu

Nesketan

5. Tolosaldea IKT 247 puntu

Neska-mutilen proba guztiak

kontuan hartuta

1. Tolosaldea IKT 825 puntu



Donostiako Atano III.a pilotalekuan finala jokatu ostean, Tolosako Zerkausian bazkaldu zuten tolosarrek. J.A.



Xabi San Sebastian Gipuzkoako txapeldun tolosarra. E. MAIZ

Herriarteko txapelketaren finala galdu arren, Tolosan bazkariarekin ospatu dute

Oiartzunen aurkako lehian, Egiguren eta Peña kadeteek lortu zuten finaleko garaipen bakarra

Asier Imaz Tolosa

Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketaren finala galdu zuen herenegun Tolosak, Oiartzunen aurka. Hala eta guztiz ere, finalean iristea gutxi ez denez, bazkari

batekin ospatu zuten lorpena Zerkausian. Tolosa 1975. urtean iritsi zen finalera azken aldiz, eta orduan, herenegun bezala, txapel-dunorde gelditu ziren.

Igandean, Atano III.a pilotalekuan jokatu zen finala, eta Donostiara Tolosako hainbat ordezkari joan ziren, tartean, Ibai Iriarte alkatea. Lehia bikain hasi zen eskualdekoentzat, kadeteetan, 22-6ko emaitza lortu baitzuten Egigurenek eta Peñak. Juniorretako partidaren ostean, txapela oraindik tolosarren eskuetan zen, Mu-

jika-Belolik 7-22 galdu baitzuten. Tanto bakarreko aldea txiki gelditu zen hirugarren eta azken partidari. Seniorren mailako lehian ez zen partidarik egon, oiartzuarrek goitik behera nagusitu baitziren 22-3ko emaitzarekin. Mujika-Errazkinek ez zuten euren egunik onena izan. Tolosako taldearen botileroa Andres Aramendi izan zen.

Itzulerako bidaia ez zen nahi bezain alai izan, baina hala eta guztiz ere, Zerkausian 50 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzera.

Xabi San Sebastian txapeldun, Aitor Regillaga hirugarren

Garaiko Triatloia jokatu zen egun berean izan zen, Mendaron Gipuzkoako juniorren txirindulari proba

A. Imaz Tolosa

Junior mailako Gipuzkoako txapeldun berria da Xabi San Sebastian txirindulari tolosarra, larunbatuz geroztik. Lasterketa Mendaron jokatu zen, eta Gipuzkoako Itzuliko protagonista ber-

dinak ibili ziren garaipenaren lehian. Itzulian bigarren egin baldin bazuen, Limousineko txirindulariak garaipena lortu zuen Gipuzkoako Txapelketan, sprintean Barcelo eta Aranburu garaituz.

Bestalde, Aitor Regillaga tolosarra hirugarren izan zen Garaiko Triatloian, larunbatean. Beneditek irabazi zuen proba 4 ordu, 28 minutu eta 4 segundoko denborarekin, bigarren Alberto Bravi izan zen, eta hirugarren, Regillaga, Euskadiko txapeldun berritik bi minutu eta 11 segundora.

Hitza Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da

A. Imaz

Hitza Pilota Txapelketa partida erabakigarrietara iristen ari da. Benjaminek A eta B multzoetako norgehiagokak jokatu zituzten iragan astean. Belauntzaran-Telok 16-11 gainditu zituzten Zabala eta Rojas; Balerdi-Mujikak gau-

za bera egin zuten Iriarte-Larrarterekin, 16-12; Arrillaga-Arrillaga 16-5 nagusitu ziren Gorostidi-Gorostidiren aurka, eta Sorarrain-Auzmendik 16-14 irabazi zuten Alana-Balerdiren aurka. Hurrengo partidak uztailaren 12an jokatuko dira, Bidegoiango pilotalekuan.

Kanflankak eta Lizasok finalerako txartela lortu dute, segan

A. Imaz

Jon Kanflanka leitzarra eta Juan Joxe Lizaso asteazurra Euskal Herriko sega txapelketaren finalerako txartela lortu dute, segan. Finalerako txartela lortu zuten, eta zortzi segalari aritu ziren lehian. Multzoko le-

hen bi segalariak finalerako txartela eskuratzen zuten, eta A taldean, Goenaga eta Kanflanka izan ziren onenak. B taldean, Esnaola eta Lizaso izan ziren pisu gehien moztu zutenak.

Bestalde, finaletik atiazko txapelduna gelditu zen, hau da, Jexuxmari Ormaetxea. A multzoan

hirugarren postuan sailkatu zen orendaindarra. Bigarren sailkatu zen leitzarra ia 75 kiloko aldea ateratzen Ormaetxeari. Beste multzoan, hirugarren gelditu zena Mikel Alkorta zizurkildarra izan zen. Bigarren postua zazpi kilotara gelditu zitzaion segalari asteazurari.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Bidegoian



DANTZA EGITERA, AZKARATERA

Bidegoiango dantza taldeak herriko mugak zeharkatu ditu asteburuan. Nafarroako Azkarate herriko festetara joan ziren dantza egitera. Nafarroako taldearekin batera egin zuten saioa. «Balerdi mendiaren azpian izugarritzko beroarekin bi

dantza taldeek dantza saio bikaina eskaini zuten», argitu dute dantza taldeak. «Bi dantza taldeak Eneritz irakaslearen ikasleak dira, eta hortik dator biek batera dantza egitearen arrazoia», azaldu dute. HITZA

Agurak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● agurak



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu



ITSASOAREN EMAZTEAK

OINKARI Dantza taldearen eta
HIKA Teatroaren eskutik

Uztailak 12 • Ostirala, 22:30ean Tolosako Leidorren

ITSASOAREN
EMAZTEAK

SOZIOALDEKO
TXOKOR **hitza**

Zozketan parte hartzeko: 943 65 56 95 edo tolosaldean@hitza.info

Egin HITZAren HARPIDEDUN

ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte,
ETA JASO:



Barrenetxe
www.barrenetxe.com

sasoiko
barazkien
otzara

Harpidedun egiten diren
guztien artean

Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu baterako
egonaldia
ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info



hitza